

## 6. HERRI MUSIKA JARDUNALDIAK ALBOKARIEN HERNANIKO 14. TOPAKETA "ALBOKA. Iragana, oraina eta geroa"

*Oiartzun eta Hernani, 2007ko azaroak 17 eta 18*



Aurten seigarrenoz, Herri Musika Jardunaldiak antolatzen ari da Herri Musikaren Txokoa, oraingoan Hernani Musika Eskola Publikoko herri soinu-tresnen mintegiarekin lankidetzan. Izan ere, alboka hautatu dugu gaitzat jardunaldi hauetarako, eta Hernaniko eskolak 13 urtez antolatu dituen albokari topaketek oinarri ezin hobea eskaintzen dute soinu-tresna honen inguruko zaleak bildu eta beronen egoeraz gogoeta egiteko. Hortaz, 6. Herri Musika Jardunaldiaz gainera Albokariaren Hernaniko 14. Topaketa ere izango diren hauek bikoitzak izango dira, ez bi erakundeon antolakuntza mailan soilik, baita berau babesten duten udalak ere bi direlako: Oiartzungo Udala eta Hernaniko Udala; hala nola laguntzai-leak ere bi herrietan izango ditugun: Auzokalte, Ibargain eta Girizia elkarteak Oiartzunen eta Santa Barbara elkarteak Hernanin; baina batik bat, egitaraua ere bi plazatan gauzatzeak ekarriko du bikoiztasun hori.

Alboka eta albokariaren egungo egoerak arrazoitzen du jardunaldion egitura, azken urteotan musika eskolara jauzi egin duen herri soinu-tresna honek erronka berriei aurre egin behar izan baitie, horietako batzuekin jada urte batzutan lanean aritu delarik hainbat jende: errepertorio eta historiaren bilketa eta analisia, eskolatarako eta dibulgazio-

rako material egokien prestaketa, lan diskografikoa, jendaurreko saio eta "plaza" berri nahiz zaharrak egokitzea, albokari belaunaldi berriak bermatu eta hobetzea,... Horiek eta beste asko, albokariaren ahotan dauden gaiak dira (eta zenbaitetan, Manu Gojenolaren kasuan adibidez, idatzitan ere bai), eta mahai gainean jarri nahi direnak hausnarketa eta praktikaren bidez gogoeta horietan sakontzeko.

Egitarauak, beraz, jardunaldiotan jada ohikoak diren bi alderdi jorrratuko ditu. Batetik alderdi teorikoak landuko dira azaroaren 17an, larunbata, goizez Auzokalte elkartearen burutuko den mintegian. Bertan izango ditugu hizlari Manu Gojenola albokari aditua eta Sardiniaetik propio etorriko zaigun Paolo Zedda. Azken honek mediterraneoko uharte hartan jotzen den "launedas" soinu-tresna berezia aurkeztuko digu. "Launedas", albokariaren moduan, kanaberaz egindako mihi bakuneko soinu-tresna polifonikoa da, hiru hodi ere badituena (albokariak bi dituen eran), eta gure soinu-tresna bezalaxe amasari buelta emanaz jotzen dena. Arratsaldean burutuko den mahai-inguruan bi soinu-tresna hauen inguruko eztabaida garatu ahal izango da, inork komu-

nikariaren bat aurkeztu nahi balu ere, bertan izango duelarik aukera. Eta Oiartzunen bertan, lehen eguna behar bezala amaitzeko, kontzertua eskeiniko dute arratsaldeko 19:30etan bi albokari taldek eta Andrea Pisu sardiniaiarak, errepertorio eta estilo ezberdinen erakusgarri.

Bestetik, alderdi praktikoari bide emango zaio azaroaren 18an, igandean eta Hernanin ordurako, goizean gauzatuko diren tailerretan. Bertan Andrea Pisu izango dugu osteralauneddasen teknikak irakatsiz, hala nola Fede de Dios amasketa zirkularren irakaskuntzari buruzko tailer batekin. Eta musikaren praktikan onena interpretazioa denez, bazkal aurretik albokariaren topaketari ekingo zaio Hernaniko kale eta plazatan Bizkaia, Gipuzkoa, Araba nahiz Nafarroatik etorritako albokariak egingo duten kale girotzean. Anaiarteko bazkariaren ondoren berriz, erromeria batekin itxiko dira jardunaldiak, Hernaniko Ezkiaga pasealekuan albokariaren doinuak gozatu eta dantzatzeko aukera paregabeaz.

Gonbidapena luzatua dago beraz, bai albokazale ororentzat, baita soinu-tresna honen munduarekin txunditu nahi duen edonorentzat ere.

# KONTZERTUAK HM Txokoan

# Udazkeneko kontzertua

2007ko urriaren 6an - arratsaldeko 6,30tan - HM Txokoan

## IRUÑEKO GAITEROAK

Gaurko "Iruñako Gaiteroak" taldearen historia Javier eta Fernando Lakunza anaiekin hasi zen 1963an. Garai hartan erosi zuten aurreneko dultzaina Mungiako Amezaga auzoko Aldarro baserriko Damaso Menayari eta Lizarrako Moises Elizagari erositako gaitekin ikasten hasi ziren. Taldearen estre-naldi ofiziala 1966ko Iruñako San Ferminetan gertatu zen, J. R. Barea danbor-

rarekin ari zelarik. Esparru ezberdinetan landu eta jorratu dute gaita: Tresna, jole eta musikaren ikerketa eta informazio bilketa, gaitero gisa, gaita hezkuntza, gaitak egiten, musika egileak,....

Gaitero, gaita eta beren musika ikerketa eta bilketa esparruan lan ezberdinak argitaratu dituzte:

- "Julian Romano Ugarte (1831-1899) Aproximación a su vida y obra musical (3 tomo)" (1990).

- "Aportaciones para un repertorio de música de gaita navarra" (1976-1980).

Honekin batera aipatzekoa da Txanbelari buruz argitaratu zituzten lanak:

- "Caubet Chubuko Arhan: txanbela eta khantoriak (I)". (1977).

- "Caubet Chubuko Arhan: Txanbela eta khantoriak (II)". (1977)

- Pierre Caubeten etxean egindako hots grabaketa disko LPan argitaratutakoa. "CAUBET CHUBUKO ARHAN: Txanbela bezala ari da khantatzen". (1978).

Gaita irakasle gisa besteak beste honakoak:

- "Método de Gaita Navarra". (1968).

- "Método Elemental de Gaita / Gaita Oinarrizko Ikasbidea (3 tomo)". (1995).

1966an Iruñan hasi eta geroztik Euskal Herriko herri askotan aritu dira mota guztietako festa eta ospakizunetan bere musika eskaintzen. Euskal Heritik kanpo ere dagoeneko ibilbide luze eta zabal egin dute.

Zuzenean jotzeaz gain grabazio ugari egin dute bakarka edo beste musikariek. Bakarka egindakoen artean aipatzekoak:

- "Iruñeko Gaiteroak - 1924". (1980)

- "Otsagiko dantzak". (1981)



- "Julián Romano por segunda vez". (1.983)

Beste taldeekin egindakoen artean aipatzekoa da Oskori taldearena, la talde honen sorreratik zuzeneko emanaldi eta disko grabaketa gehienetan parte hartu dute taldeko partaide balira.

Oso garrantzitsua Euskal Herriko dantza talde askorekin eta Euskal Dantzarien Biltzarrekin izandako harremana. 1966an Fernando eta Javierrek gaita egiteari ekin zioten,. Garai hartako gaitero asko izan ziren hauek egindako tresnekin jotzen hasi zirenak. Gaur egun txanbelak ere egiten dituzte.

Billboko beren etxean hasi ziren 1965 inguruan inguruetan zirenei erakusten. Etxetik kanpo lehen eskola Iruñako Oberena elkartearen egoitzan antolatu zuten 1970-71 ikasturtean.

Musika egile bezala Monteagudoko dantzak, fandangoak, arin-arin, martxak, baltsak eta bestelako hamaika pieza berriak egin dituzte.

### KONTZERTUAREN EGITARAUA

Salida de Toriles.	<i>Tradicionala Gareskoa</i>
Chotis nº 1	<i>J. Romanoren koadernokoa</i>
Polka	<i>J. Romanoren koadernokoa</i>
Mazurca	<i>J. Romanoren koadernokoa</i>
Vals con variaciones	<i>Perez anaiak</i>
Rigodón 17	<i>J. Romanoren koadernokoa</i>
Caprichos para Dulzainas	<i>T. Manso-J. Romano</i>
Sonatas nº 3,4,5,13 y 16	<i>J. Romanoren koadernokoa</i>
Duetino	<i>James Hook</i>
Beti Aurrera	<i>G. Butrón</i>
A Navarra. Jota	<i>A. Brull</i>

# ANTONI MARÍ ETA JOSEP MARIA CARDONA

(Eivissa)

Bi musikari hauek Eivissan jaio ziren 1978an eta majisteritzan daude diplomaturik. Biek hasi zuten beren ibilbidea 1987an, "Colla de Sa Bodega" taldean dantzari eta musikari bezala, jaialdi askotan parte hartuz. Biak ere "Sonades d'Eivissa i Formentera a l'escola" liburuaren egileak dira. Gaur egun irakaskuntzan egiten dute lan eta aldi berean flauta eta Eivissako danborra erakusten dituzte.



Kontzertu honetan Eivissako musikaren erakusketa egingo dute, alde instrumentalenaren ikuspegitik, hiru zuloko flauta, danborra, *castanyoles* eta *txeremia* erabiliz. Errepertorioan Eivissa eta Formenterako doinu herrikoiak, egile ezagunarenak, mezetakoak eta *txeremiako* doinuak izango dira:

- *Sonades de Baile: Sa curta, Sa llarga, Ses nou Rodades.*

- *Sonades de Autor: Sa Calera, Sonades den Micolau, Es trenquet de n'Esquerrer, Sa nineta, Es figueral, Es Jugaroll, s'Agustinera,...*

- *Sonades de misa: Al cel, s'alça a Deu, Oh Maria, Maria que guapa estàs, es Pas de Maria...*

- *Sonades de Txeremia.*

Udazkeneko kontzertua HM Txokoan

## AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartearen (Herri Musikaren Txokoaren ondoan) musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izen emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua murrizta baita. Prezioa: 15 euro.



Kontzertu honen laguntzaileak:



Govern de les Illes Balears  
Conselleria d'Educació i Cultura



CONSORCI  
FUNDAMENT DE LA LLINGUA  
CATALANA I LA PROJECCIÓ  
EXTERRANERA DE LA CULTURA  
DE LES ILLES BALEARS



## HM udazkeneko kontzertua

Benetan arrakastatsua gertatu zen uztailaren 21ean antolatutako Udako kontzertua. *Formatia Fluera*s moldavoen birtuosismoa eta *Beltran eta Astiasaran anaiak* euskal musikarien giro aparta dira azpimarragarriak kontzertuan bertan Auzokalte elkarrekin jaso zuen jende multzo handiarekin batera. Baina ezin ahaztu ere afari ondoko giroa (moldavoek ez zuten itxaron postrea hartu arte jotzen hasteko), musika, dantza, kantuak,... Beheko argazkian afalondokoaren une bat



### **BISITARI KOPURUA**

Ekaina: bisitari kopurua: 379  
 Antolatutako taldeak: 19  
Uztaila: bisitari kopurua: 263  
 Antolatutako taldeak: 9  
Abuztua: bisitari kopurua: 169  
 Antolatutako taldeak: 12  
 Bisitari kopurua irailera arte: **15.853**

## Eskualdeko dultzaineroen bilera Oiartzunen.

2007ko Oiartzungo San Estebanetan, abuztuaren 5ean herriko plaza eta kaleetan dultzaina eta danborren hotsak nagusitu ziren. Oiartzungo HM Eskolak antolaturik Eskualdeko dultzaineroen topaketa ospatu zen. Inguruko beste herrietan aspaldidanik egiten den bezala, aurten Oiartzunen elkartu ziren Hernani, Lezo, Donostia, Pasaia, Errenteria eta Oiartzungo dultzaineroak. Arrakastatsua izan zen hauek festetan jarri zuten giroa eta horregatik hemendik aurrera ekintza hau Oiartzungo festetako osagai ezinbestekoa izango delakoan gaude.

### **HERRI MUSIKAREN TXOKOA**

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN  
 Tel / Fax (9) 43 49 35 78  
[herrimusika@herrimusika.org](mailto:herrimusika@herrimusika.org) // [www.herrimusika.org](http://www.herrimusika.org)



**oiartzungo udala**